



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

ALKATETZAREN 2021/420 DEKRETUA

GAIA.- HAPO-aren Aurrerakina jendaurrean jartzearen luzapena

AURREKARIAK

1.- 2021eko urtarrilaren 28an egindako osoko bilkuran, besteak beste, honako hau erabaki zen:

Lehenengoa.- Arruti SCPk egindako Ondarroako HAPO-aren Aurrerakina jendaurrean jartzea, luza daitezkeen bi hilabetez. Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GARA egunkarian argitaratuko da, baita udala webgunean www.ondarroa.eus ere.

2.- Tarte horretan, oharrak, iradokizunak edota alternatibak aurkezteko aukera dute partikularrak eta erakundeak.

3.- 2021eko otsailaren 22an erabaki horren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta oharrak, iradokizunak edo alternatibak aurkezteko bi hilabete epea ireki zen.

OHAR JURIDIKOA:

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren 90. Artikuluak, HAPOa nola prestatu eta izapidetu xedatzen du. Besteak beste, 3. Paragrafoak honako terminoetan:

3.-Una vez elaborado el avance, el ayuntamiento acordará su exposición al público durante el plazo mínimo de dos meses, en el que se podrán presentar sugerencias y alternativas. La exposición pública será anunciada en el Boletín del Territorio Histórico en el del diario o diarios de mayor difusión o de mayor circulación del territorio. (...)

2021/01/28ko osoko bilkuraren erabakiak aurreikusten du jendaurrean jartzeko epea luza daitekela.

Kontutan harturik Udal interesekoa dela oharrak, iradokizunak edota alternatibak aurkezteko aukera ez mugatzea

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Luzapena

Arruti SCPk egindako Ondarroako HAPO-aren Aurrerakina jendaurrean jartzea luzatu 2021eko maiatzaren 28ra arte, egun hori barne.



ONDARROA UDALA
Bizkaia

Bigarrena.- Berrestea.

HAPO-aren Aurrerakina jendaurrean jartzeko erabakia udalbatzak hartu zuenez, organo horren hurrengo saioan berretsi egingo da erabaki hau.

Hirugarrena.- Luzapena argitaratu.

Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GARA egunkarian argitaratu, baita udal webgunean www.ondarroa.eus ere.

Laugarrena.- Jakinarazpenak

Erabaki honen berri Hirigintza Batzordekideei, Udal Arkitektoari eta Arruti SCP-ri jakinarazi.

Ondarroan, 2021eko apirilaren 21a

ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA

ALKATEA